Prest! DEUSTUALDEKO ALDIZKARIA

230 zenbakia
2021 **abendua**

Prest!

BERBETAN: **RUTH GUIMERÀ URRETXA** AKTOREA

ERREPORTAJEA: **DEUSTUKO ERRIBERAKO AUZO INKESTA** BARKUA: **'BANDA' OLERKI LIBURUA**

TOKIKOM

26-227-228-229-230-

Sustatzailea

Berbaizu euskara elkartea

Babesleak

Intxixu kastola

txantxiku .Deustuko Aisialdi Taldea.

erraldoien ondalan konpartsa

BASKale

BIHOTZ ALAI FOLKLORE DANTZA TALDEA

ARRAVN TALDEA DEVSTU

ELORRI BERTSO ESKOLA

DEUSTUKO JAI BATZORDEA

S.D. DEUSTO

DEUSTUKO GAZTE LOKALA

zirikatzen!

eaj pnv deustu

EGUNSENTIA ESKAUT TALDEA 1982TIK

ernai Deustua

PARE HAUTSI BIZKAUK KATEAK

DEUSTUKO GAZTE ASANBLADA

Laguntzaileak

Hedabide honek honako erakundeen dirulaguntza jaso du, baina BLB Komunikazioa Kooperatiba Elkartea da edukiaren erantzule bakarra

Bizkaia foru aldundia diputación foral

Bilbao

Babestu Prest! urtean 25€

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bidali zure datuak ondoko helbideetara:

Izen-abizenak .....
Helbidea .....
Telefonoa .....
E-posta .....
Kontu zenbakia (Iban) .....

prestharpide@gmail.com
94 447 10 42
Ramon y Cajal 42 / 48014 - Deustu

230 zenbakia
2021eko abendua

aurkibidea

Angel Prieto Fidalgo - Atxarte Salvador Navarro **Iritzia** 4

Jon Azanza eta Lander Crespo **Gureak kanpoan** 5

erreportajea 6
Deustuko Erriberako auzo inkesta
Auzokideek auzoaren inguruan dituzten kezkak eta larritasunak ezagutzeko eta auzoaren argazki demografikoa egiten lagunduko duen komunitate errolda osatzeko abiatu zuten hainbat lagunek auzo inkesta eta errolda fitxa joan den ekainean Deustuko Erriberan. Orain, emaitza horiek mahai gainean jarri eta ondorioak ateratzeko unea heldu da.

Deustuko Eskola **Eskolak** 10

Marisorkien ibilerak (II): sardinerak, bendejerak eta esnedunak **Behin batean** 12

PREST!eko urteurrena | Beste 20 baietz! **Artikulua** 14

berbetan 16
RUTH GUIMERÀ URRETXArekin
John Strasberg antzerki zuzendariaren Accidental Repertory Theater konpainiako kidea da Ruth Guimerà. Actor's Studioan aritu den Euskal Herriko lehen aktorea da eta Broklyn-eko Company XIV. dantza taldeko laborategian gonbidatua izan da hainbat urteetan. New Yorken hamar urte egon eta gero, San Inaziora itzuli da, etxera. Han ikasitakoa hemengo "aktore ausartekin" partekatu nahi du eta euskaraz.

Deustuko Tigrea (1942) **Irudiak berbetan** 21

barkua bete berba 24

LITERATURA Eskalatzaileen esperientziak prisma feministatik begiratuta

KULTURA 'BANDA' olerki liburua kaleratu du Jokin Erkorekak

PINTXODROMOA Bristol Bowl-a

KULTUR TXOTX Hodei Torres eta Eire Salegi Zulaika

Prest!

Argitaratzailea:
BLB Komunikazioa Koop. Elk.
Tel: 94 447 10 42
Ramon y Cajal 42
Deustu 48014
bilbokoaldizkariak@gmail.com

Zuzendaria: Nerea Cubillo Urkizu
Erredakzioa: Nerea Olaziregi, Gaizka Suarez, Laura Freijo, Hekor Ortega, Jone Gartzia, Borja Sarrionandia-Ibarra, Andoni Lopez, Aitor Sarrionandia-Ibarra, Patxi Gaztelumendi, Olatz Arregi, Ane Rotaetxe, Iker Basabe, Maider Zalbidea, Hodei Torres, Maddi Argote, Ane Zabala, Lur Mallea, Txema Luzuriaga, Jon Intxaurraga
Kolaboratzaileak: Elorri Bertso-Eskola, Deustuko Eskola, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inazioko eskola, Arangoitiko Eskola, Deustuko Gazte Lokala, Deustuko Jai Batzordea, Errondoko Auzo Etxea, San Inazioko Jai Batzordea, Bilbotik Perura
Argazkiak: Ecuador Etxea
Publizitatea: Nerea Cubillo Urkizu
Diseinua: BO5T
Maketazioa: Laura Freijo Iglesia
Inprimategia: Antza
Ale kopurua: 2.800
Lege Gordailua: BI-571-01



Angel Prieto Fidalgo
Ikerlaria

Kontuz! badator kalejira! Arriagan babes zaitezte!

Koronabirus bidezko kutsatzeak ugaritu direnez, auzoetan antolatutako Olentzero eta Maridomingiren kalejira guztiak bertan behera uztea erabaki du Bilboko Udalak. Alkatearen hitzetan, osasun egoera larria da eta ondorioz, birusari aurre egiteko neurriak hartzea beharrezkoa da. Beraz, kalejiren arriskua saihesteko, Aburto alkateak Olentzero eta Maridomingi gonbidatu ditu Arriaga barrualdean egingo den ekitaldi batera. Bilboko Udalak antolatutako ekitaldi horretan 2500 umerentzako lekua egongo da, hiru emanaldietan banatuta.

Udalaren ustez, Arriaga antzokian kaleetan baino kutsatzeko arrisku gutxiago dago. Akaso uste du Bilboko Udalak Arangoitiko kalejiran milaka ume egongo direla? Edota kutsatzeko neurriak jarriko ez direla? Auzoetan antolatzen diren Olentzero eta Maridomingiren kalejirak aire librean egiten dira, pertsonen arteko espazio nahikoa utzi ohi da eta parte hartzen duten guraso gehienek erantzukizunez jokatzen dute.

Gure umeek kalejira batean egoteko baimenik ez duten bitartean, masifikatutako taberna batean egoteko aukera izango dute. Eta diskoteka batera sartu ahal garen bitartean umeak ezin izango dira kalean antolatutako ekitaldi seguru batean egon. Zentzurik gabeko neurri hauen erruagatik elkarteok auzoetan antolatzen ditugun betiko kultur ekitaldiak pikutara joaten ari dira. Erdigunean egiten diren ordainpeko ekitaldiak, berriz, handitzen ari dira.

Atxarte Salvador Navarro
Hego-haizearen zurrunbiloan

1.5º C

2015eko Parisko Hitzarmenean Lurraren tenperatura gehienez 1.5ºC igotzea onar dezakegula adostu zen, industrializazio garai aurreko tenperaturarekin alderatuta, igoera horrek eragindako hondamendiaren ondorioak jasan ditzakegulakoan, nonbait.

Ildo beretik, pasa den hilean Glasgown adostutako konpromisoak ez dira oso asmo handikoak izan, baina, behintzat, 1.5ºC besterik ez igotzeko helburua berretsi zen. Baliteke bertaratutako lobbyek akordioen epelkerian zerikusia izatea, helburuak betetzeko erregai fosilen erabilera mugatu behar baita.

Edozelan, negutegi efektuko gasen isurketa murrizteko konpromisoak beteta ere, 2100 urterako Lurraren tenperatura 2.7ºC igoko litzateke. Beteko ez balira, berriz, tenperatura 4ºC igoko litzateke eta itsasoaren maila 6-9 metro inguru. Ondorioz, gaur egungo hiri eta herri asko urpean geratuko lirateke, ia mila miliioi pertsona kinka larrian utzita.

Baina, hara non, NBEko adituen arabera, 2030erako 1.5eko langa horretan egongo garen bai ala bai. IPCCren seigarren txostenaren arabera, aditu guztiak bat datoz, Lurraren tenperatura industrializazio garai aurrekoa baino 1.2ºC altuagoa baitzen 2020an jada. Gainera, Munduko Meteorologia Erakundeak dioenez, 2024an bertan 1.5°C baino gehiago izateko probabilitatea % 20koa da.

Munduko zientzialari adituak biltzen dituen Climate Central erakunde independenteak webgune bat atondu du igoera horren ondorio zehatzak aurreikusteko, Lurraren tenperatura 1.5 gradu igotzen denean, itsasoak 3 metro egingo baitu gora. Igoera jasangarria omen.

Bada, ezetz asmatu nola egongo den Deustuko Erribera tenperatura 1.5ºC igotzen denean. Horixe, gureak egin du.

Jon Azanza eta Lander Crespo

Jatorria: Deustu
Bizitokia: Polonia (Rzeszow eta Opole)
Lanbidea: Ingeniaritza gradua
Adina: 24

Unibertsitateko Erasmus programarekin Poloniara joan dira Jon Azanza eta Lander Crespo deustuarrak. Lander Rzeszow hirian dago eta Jon berriz, Opolen. Irailean joan ziren bertara eta ikasturte erdia bertan igarotzeko asmoa daukate. Oraingoan Ander Anakabe Berbaizukideak egin die elkarrizketa, txikitatik ezagutzen dituen lagunei bisita egitera joan dela aprobetxatuta.

Testua eta argazkiak: Ander Anakabe Lekue

Nolakoa da Euskal Herritik kanpoko bizitza?

Jon: Irailean heldu nintzen eta orain arte oso aberasgarria iruditu zait. Poloniako eguneroko bizitza merkeagoa da Euskal Herriko bizitzarekin alderatuta. Hemen beste txanpon bat erabiltzen dute, Zloty-a.
Lander: Jonen antzera, ni ere irailean heldu nintzen eta orain arte oso lasaia eta aberasgarria iruditu zait.

Kanpotar askorekin batu zarete Polonian?

J: Bai. Batez ere Politeknikako jendearekin ibiltzen naiz eta hauek Espainiako toki ezberdinetakoak dira. Batzuetan Portugalgo ikasleekin elkartzen gara.
L: Hemen ezagutu ditudan lagun gehienak Espainiakoak dira. Batzuetan beste unibertsitateetako jendearekin elkartzen gara eta bertan portugaldar asko daude.

Unibertsitatera joateaz gain, zer egiten duzue egunean zehar?

J: Opolen denetarik egiteko aukera dago. Unibertsitateko ikasleak izateagatik saskibaloi partidak ikustera joateko aukera daukagu. Halaber, lagun ukraniar bati esker beste hainbat ekintza egin ditugu, adibidez hemengo futbol partidak ikustera joan.
L: Rzeszow hiria bisitatzeaz gain, unibertsitateak zeramika tailerrak eta kirolarekin zerikusia duten ekintza asko eskaintzen dizkigu. Denbora libre asko daukagunez Poloniako beste hiri batzuk bisitatzeko aprobetxatu izan dugu.

Zer bisitatu duzue?

J: Krakobia Opoletik bi ordutara dagoen hiri handia da eta trenez joan gara hiria bisitatzera. Bestalde, Wroclaw (Breslabia) hiria ere ezagutu dut.
L: Jonen antzera nik ere Wroclaw eta Krakobia hiriak bisitatu ditut, azken hau nire bizitokitik oso gertu baitago. Varsovian ere egon naiz, baita Budapesten ere, Hungarian.

Nola moldatzen ari zarete hizkuntzari dagokionean?

J: Orain arte bizpahiru esamolde ikasi ditut. Bost hilabeterako etorri naizenez erabaki dut hizkuntzari denbora gehiegi ez eskaintzea.
L: Ni ingurukoekin ingelesez komunikatzen naiz batez ere. Astean bi orduko bina klase ematen ditugu poloniera ikasten.

Polonia eta Bielorrusia arteko mugan istiluak egon dira azken hilabete hauetan. Eragina izan dute istiluek zuen hirietan?

J: Unibertsitateko koordinatzaileak istiluen berri eman zigun mezu elektroniko baten bitartez, jakinaren gainean egon gintezen. Hala ere kanpotik ikusten dena baino eraso gutxiago izan dira Polonian.

Zer duzue faltan?

J: Etxeko jendea eta lagunak faltan botatzen ditut. Alabaina gaur egungo tresnekin oso erreza da haiekin etengabe harremanetan egotea.
L: Nik Euskal Herriko janaria faltan botatzen dut, baita gertuko jendea ere.

Abenduaren 10ean egindako emaitzen aurkezpena.

AUZO INKESTAREN EMAITZAK AURKEZTU DITUZTE DEUSTUKO ERRIBERAN

Auzokideek auzoaren inguruan dituzten kezkak eta larritasunak ezagutzeko eta komunitate errolda osatzeko abiatu zuten hainbat lagunek auzo inkesta eta errolda fitxa joan den ekainean Deustuko Erriberan. Orain, emaitza horiek mahai gainean jarri eta ondorioak ateratzeko unea heldu da.

Testua: PREST!

Herri edota auzo bateko edo hiri inguruko komunitate bateko biztanle eta etxebizitza guztien datuak jasotzeko prozedurak dira komunitate erroldak. Herrialdeari eta haren banaketa politiko-administratiboei buruz egiten diren errolda ofizialetan ez bezala, kasu honetan gizarteak definitutako lurraldeetan egiten dira errolda komunitarioak, auzo bereko biztanleen artean egindako kontsultaren ondorioz. Eta hala egin dute Deustuko Erriberako bizilagunek, bertako auzo elkartearen bultzadaz. Aipatu beharra dago, 2021eko ekainean abiatutako auzo inkesta ez dela Deustuko Erriberan egiten den lehen galdetegia izan, izan ere, 2001. urtean, hau da, bi hamarkada lehenago ere prozesu berdina jarri baitzen martxan.

Zorrotzaurre Planaren ondorioz, gaur egun Deustuko Erribera etengabeko aldaketa prozesuan aurkitzen den auzoa da; eraikin zaharren eraispenek eta espazio degradatuen berreskurapenek protagonismo handia hartu dute azken bi hamarkadetan. Etxebizitza berriek eta dagoeneko auzoan errotuta dauden ikasketa zentro pribatuek zein kultur espazioek atea zabaldu diote auzora heltzen hasi den belaunaldi berri bati. Bestalde, Deustuko Erriberako lur eremuaren zati handi bat enpresa gutxi

batzuen eskuetan dago. Eta dagoeneko lurzorua erabilera pribaturako bideratzen hasi dira, herritarren erabilera-eskubideen artean bereizketa handia eginda.

2004. urtean Zaha Hadid (Bagdad, 1950-2016) arkitektoak osatu zuen Zorrotzaurre Masterplan izeneko proiektua. Horren helburuak, besteak beste, Deustuko kanalaren erabateko zabalpena, urteen buruan degradatu den espazioaren berreskurapena eta egun penintsula zena uhartea bihurtzea ziren. Aipatutako proiektua 2004. urtean onartua izan zen arren, esan daiteke aldaketarik sakonenak 2018. urtetik aurrera gauzatu direla. Beraz, soilik bizpahiru urte igaro dira besteak beste, Deustuko Erribera eta Deustu auzoak lotzen zituen 400 metroko lurzorua zabaldu eta Deustuko Erribera penintsula izatetik uharte izatera iritsi zen arte. Ez dira horiek lur eremu honetan eman diren aldaketa bakarrak, izan ere, eremua zabaldu, 'luxuzko' eraikin berriak ezarri eta bestelako zerbitzu pribatu batzuk ere nagusitu dira azken urteotan. Zerbitzu publikoak ordea, esku bateko atzamarrekin zenbatu daitezke auzoan bertan nagusitzen direnak: Deusturaino heldu eta soilik ordu erdiro igarotzen den autobus linea bakarra, udaleko bizikleta zerbitzua… Noizbehinka igarotzen den Bilbogarbi zerbitzua eta askotan auzokideek faltan botatzen duten argiztapen eta ur zerbitzua.

"Auzoan dauden zerbitzu publikoak oso urriak dira"

Hain populazio txikia duen auzoa izanda, azken urte hauetan uhartean gertatu diren aldaketen berri izateko edota hauen inguruko iritzia botatzeko ez dute mahai formalik behar izan Deustuko Erriberako bizilagunek. Izan ere, ohitura handia dute auzokideek petrilean elkartu eta auzoan ematen diren aldaketen inguruko kezkak eta

haserreak azaleratzeko. Hala eta guztiz ere, auzoan bizi den jende guztia ez da petrilean esertzen eta beraz, bertan bizi den jende gehienaren iritzia ezagutzeko sortu da galdetegi hau. Zer iritzi dute Deustuko Erriberatarrek Zorrotzaurre planaren inguruan? Zenbat etxe huts daude gaur egun Erriberan? Zenbat eraikin eraitsi dituzte? Ez dira gutxi izan azken hilabete hauetan eskuratutako datuak.

"31 etxe huts daude Deustuko Erriberan"

Inkestak etxebizitzetatik banatu baino lehen, ardura hori betetzeko prest zeudenak bildu zituzten ekainean Bizinahi auzogunean. Guztira 10 laguneko taldea izan da inkestak etxez etxe banatzen ibili dena. Galdetegia betetzeko astebeteko epea eman zitzaien auzokideei eta salbuespena izan dira bakarrik bizi diren adin nagusiko bizilagunak, kasu honetan eta nahi izatekotan, haiekin batera inkesta betetzeko aukera zabalik utzi baitzuten. Inkestaren mugei dagokionez, auzoan bizi diren 14 urtetik beherakoek ezin izan diete galderei erantzun. Berdina gertatu da kale amaieran bizi diren 50 bat etxegabeekin, hauekin harremana dagoen arren, ez da bideragarria izan hauei inkesta eman eta jasotzea.



Datu batzuk

Populazio datuei dagokionez, gaur egun industria pabiloietan eta kale egoeran dauden bizilagunak kontuan hartuta, 428 dira gutxi gorabehera auzoan bizi direnak. Horietatik estimatzen da 378 biztanle etxebizitzetan bizi direla eta horien artean %91,11a dagoela bertan erroldatuta.

Halaber, 2001eko datuekin alderatuta auzoan sei eraikin gutxiago daudela ezagutu ahal izan dute, gaur egun orotara 45 baitaude. Aipatutako eraikinen artean, egun 38tan biztanleak daude, 6 hutsik eta bakarra erdi hutsik. Etxebizitzei dagokionez, guztira 211 etxebizitza daude eta horien %85,31tan biztanleak bizi dira. Ondorioz, guztira 31 etxe huts daude Deustuko Erriberan.

Alokairuen prezioetan ere ikus daiteke Zorrotzaurre Planak dagoeneko eragina izan duela. Auzokideen artean %26a alokairuan bizi da eta gehiengoak (% 43,59) 600 euro edo gutxiago ordaintzen ditu. Hala eta guztiz ere, 800€ra arteko alokairuak badaude (%33,33) baita 1000€ra artekoak ere (%12,82). 2001eko galdetegian parte hartzaileen

Euskararen Etxea
Zatoz!
www.euskararenetxea.eus

Azkue Fundazioa
Bizkaia foru aldundia diputación foral

Agoitz plaza 1 48015 Bilbo, Bizkaia.
Tel.: 94 402 80 81
E-posta: info@euskararenetxea.eus
Metroa: San Ignazio > Lekeitio Irteera.

%21ak etxeen alokairu baxua abantailen artean kokatu zuen galdetegian. Gaur egun, ordea, pertsona batek ere ez du alokairuen prezioa abantailatzat jotzen. Lurzorua esku publikoetatik pribatuetara igaro eta, aldi berean, 2007. urtean etxebizitzen birgaitzea egin zenetik alokairuen prezioa asko igo da azken urte hauetan.

Zorrotzaurre Plana: mehatxu ala aukera?

Hirgintza planak ekarriko dituen hainbat abantaila identifikatu dituzte datozen urteei begira. Hauen ustez, luxuzko etxebizitzak eraikitzerakoan, egun dagoeneko kultur eta hezkuntza espazioekin gertatzen ari den bezala, entitate ezberdinak helduko dira uhartera, azken hiru hamarkadetan egon ez diren zerbitzuei bidea eginez. Jarraitzeko, garraio publikoaren maiztasunak, argiztapen publikoak eta kaleko garbitasunak hobera egingo dutela uste dute. Deustuko Erriberan nagusi den herri izaera galtzea da gailendu den eragozpena. Bigarren maila batean, garabiek eta eraikin berriek ekarritako obrak, zaratak, zikinkeriak eta etxebizitza zaharretan agertzen hasi diren arrakalak dira auzokideen ustez planaren garapenak ekarriko duen beste eragozpen bat. Ikusi beharko da, ezta?



EZ DUGU AZAROAREN 25A OSPATU NAHI

Ikasturtez-ikasturte, baditugu ondo baino hobeto markatuta ditugun egunak: euskararen eguna, Olentzero eta Mari Domingi, inauteriak… Azken urteetan berezko pisua hartzen hasi dira beste batzuk, baina. Ez gure gustukoak direlako, baizik eta gizarteak hala eskatzen duelako: martxoaren 8a eta, bereziki, azaroaren 25a.

Testua eta argazkiak: Deustuko Eskola

Zeinu hizkuntza, LH4.

Inauterien edota euskararen egunaren eta martxoaren 8aren edota azaroaren 25aren artean ordea, izugarrizko desberdintasuna ikusten dugu gure eskolan, eta hala sentiarazi nahi diegu gure ikasleei. Lehenengoak ospakizun egunak diren bitartean, hau da, barre eta kantuz egoteko egunak, askotan askari handi edota mozorroak lagun direla, bigarrenak aldarrikapen egunak dira, oinarrizko eskubideen eskaera oihu eta hauen faltaren salaketa hain zuzen. Duten garrantziaz hitz egiten diegu ikasleei, noski, baina baita gure ikasturte hasierako egutegi horretatik kentzeko dugun gogoaz, matematika, euskara edota heziketa fisikoa, aritzeko dugun gogoaz, kolore morea albora utzi eta beste mila koloreak jantzi eta erabiltzeko dugun gogoaz alegia.

Aurten, hala eta guztiz ere, egun hori aldarrikatu eta landu dugu, gure memoriak gogoratzen duen azken ikasturte guztietan bezala. Aurten Patria, Minerva eta Maria Teresa izan ditugu gogoan, Mirabal ahizpa dominikarrak, “Mariposas” edo tximeletak goitizenaz ere ezagunak, , Rafael Trujilloren aurka egindako lanagatik, seinalatutako data honetan erahilak izan zirenak 1960. urtean. Gertakizun honen ondo-

Zeinu hizkuntza, LH5.

rioz, 1999. urtean Nazio Batuen Erakundeak "Emakumeen kontrako bortizkeria ezabatzeko Nazioarteko Eguna" izendatu zuen, eta gure eskolan ekintza desberdinak burutzen ditugu mundu zabalean egon diren Mirabal ahizpa guztiak ahanzturan erori ez daitezen.

Azaroko azken astean ekintza desberdinak burutu genituen eskolako ikasle guztiekin, azaroaren 25ean bukaera izan zutenak. Goizetik hasita, ikasle bakoitzak astean zehar koloreztatutako tximeletak horma irudi erraldoi batean itsatsi zituen. Hortaz aparte, Rozalen abeslariaren "La puerta violeta" abestia landu genuen. Ikasleek letraren inguruan hausnarketa egin dute irakasleen laguntzaz eta baita zeinu hizkuntzan zatika antzeztu. Ondoren, zati guzti horiekin bideo muntaia osatu genuen eta eskolako blogean eskegi dugu, eskolako familiek ikusgai izan dezaten.

Deustuko eskolatik ziurtatu dezakegu, azkena izango ez dela dakigun arren, gure esku dagoen guztia egiten jarraituko dugula hala izan bedi, horretarako gure ikasleen kontzientzietan behar diren beste ate more zabalduz eta tximeletak askatuz. Urteren batean azaroak 25 gure egutegian markatuta etorriko den eguna izan ez dadin, ospatzeko ezer egongo ez denaren esperantzaz.

Zeinu hizkuntza, LH2-B.

MARISORKIEN IBILERAK (II): SARDINERAK, BENDEJERAK ETA ESNEDUNAK

Sorkia buruan lan egiten zuten andreen berri emateko bigarren atal honetan arrain-saltzaileak, bendejerak eta esnedunak izango dira protagonista. Baten bat harrituko bazaigu ere, hirurak ibili ziren Deustutik, Bilborako bidean.

Testua: Hektor Ortega

Esnedunak Deustuan, XX. mendearen hasierako posta-txartel batean.

XVIII. eta XIX. mendeetan portuetako emakumeek hartzen zuten bere gain arraina garraioan eramateko eta saltzeko ardura. Bermeo, Mundaka, Ondarroa, Mutriku... herrira heldutako arrain freskoa astoetan kargatu eta hiribildu handienetara joaten ziren kalerik kale edo plazan arraina saltzera: Durango, Eibar, Bergara... eta Bilbo, jakina. Bilbon oso ospetsuak ziren "lebatz freskua" aldarrika ibiltzen ziren bermeotar arrain-saltzaileak. Astodunak ziren denak, esan legez, eta horrela jaso zuten Durangoko Plateruek "Arrain saltzaillia" kantu ospetsuan: "Arre, potxo, arre! Arre, asto, arre! Arre, maletxoria! Arre, bada, arre! Isso, isso, isso! Hortik zek harua? Beti baina okerretik, asto berenua!".

XIX. mendean zehar Bilbon Santurtziko sardinerek hartu zuten protagonismoa. Beharbada horretan zer ikusia edukiko zuen garraio sistema berrien ezarpenak. Badirudi euren jatorrizko ibilbidea honako hau zela: Santurtziko portutik Portugaletera, han batelean eskuinaldera igaro (orduan hareatza hutsa zen Areetara) eta

bertatik, ibaiertzetik bertatik Bilboraino. Beraz, azken kilometroak Deustutik egiten zituzten.

Sabino Goikoetxeak (*Argos*) El Noticiero Bilbainon idatzi zuenez, Santurtzitik Bilborako hamasei kilometroak ordu bitan egiten zituzten, otzara bete sardina buruan. Arinak ziren gero! Izan ere, Bermeotik astoari eragiten edo Santurtzitik oinez, arrain-saltzaileak lasterka etortzen ziren Bilbora, zenbat eta arinago helduta, salmenta gehiago eta hobeak (garestiagoak) egingo zituztelako. Hala ere, ez ziren banaka ibiltzen, multzoka baino, berbaro ozena eta arrain usaina zeriela. Erraza ei zen arrain-saltzaileak zetozela igartzea.

1878an Areeta-Bilbo tranbia berriak (mandoz tiratutako tranbiak, alegia) ibilera irauli zuen: harrezkero, ez zuten oinez egin behar bide zatirik luzeena, tranbiaz baino. Hurrengo urteetan tranbia elektrifikatu zuten, beste tranbia bat jarri zuten Portugalete eta Bilbo artean (sardinerentzako bagoi bat eramaten zuen atoian 1900. urtean), trena etorri zen gero...

Arrain-saltzaileak ez ziren gehiago oinez pasatu Deustutik, baina "Desde Santurce a Bilbao" abestiak dioen "por toda la orilla" hori entzutean garai batean Deustuko ibaiertza ere tartean zela irudikatu behar dugu. Eta tranbia aurreko sasoi haietan, elkarren arteko lehia betean etorritako emakume haiek batera itzultzen ziren herrira, zaratatsu, oinez, "sorkiz betebeterik burutik gerrira / kresalak erre eztaidan/ neure arpegia", Plateruen abestiari erantsitako bertso batek dioenez.

Bendejerak eta esnedunak

Arrantzale herrietatik arrain-saltzaileak joaten ziren Bilbora; baserrietatik, ostera, bendejerak eta esnedunak. Lehenengoek ortuariak eta bestelako baserri-produktuak eramaten zituzten Bilboko plazara, beti sasoian sasoikoak: barazki batu berriak, arrautzak, frutak... Bigarrenek, jakina, esne hornidura bermatzen zuten. Beraz, arlo hauetan ere, emakumeok garraiolari eta merkatari jarduten zuten Bilboko beharrizanak ase asmoz.

Astodunak izaten ziren batzuk eta besteak, baina baita sorkidunak ere, marisorkiak, otzarak eta zaranak produktuz (bendeja) edo esnetxantxilaz beteta Bilboko plazara joaten ziren eta. Goizean goiz. Normalean arazo handirik gabeko bidea izaten zen. Inoiz, ostera, ezustekoz beteta. 1895eko San Ignazio eguneko goizaldean, Bilborako bidean hiru esnedunek gizon baten hilotza idoro zuten Deustuko Berrizko estrata baten. Hildakoa Domingo Agirre zen, 36 urteko arotza, Berrizkoa bertakoa. Aizkorakada ikaragarria ei zeukan deustuarrak burualdean. Antza denez, diru-poltsa eta zilarrezko erlojua kendu zioten hildakoari. Prentsan irakurri dugu aberatsa omen zela eta hilotzaren ondoan arotzaren lanabesak aurkitu zizkiotela.

Esnedunen tradizioa XX. mendearekin amaitu zen. Bendejerak, herri nagusietako plazetan haien baserri-produktuak saltzen dituzten emakumeak alegia, ostera, badira. Ez asko eta, itxura baten, ez luzerako.

kalderapeko
euskal kultur gunea
www.kalderapeko.com
txakur kalea, 1. 48005
bilbo • euskal herria
tfnoa: 94 416 40 99

BESTE 20 URTE BAIETZ!

Testua eta argazkiak: PREST!

Euskararen egunean ateratako irudia.

Aurreko zenbakian aurreratu genizuen bezala, martxoan gure aldizkariak 20 urte bete izanaren aitzakiapean aste osoko egitarau polita antolatu genuen azaroaren 29tik abenduaren 3ra bitartean. Pandemiak eta eguraldi kaxkarrak ekintzak espero ez genituen bezala antolatzera behartu gintuen arren, bi hamarkadak behar bezala ospatu izanaren sentsazioarekin geratu gara eta hori zuei, egun horietan gurekin egotera hurbildu zinetenoi, esker izan da.
Euriak San Inazioko baserriak ezagutzeko ibilbidea zapuztu zuen, alabaina, amorerik eman gabe Baztan Haranaren plazako arkupeetan ibili ginen garai bateko baserrien istorioak ezagutzen Hektor Ortega historialariarekin batera. Era berean, asteazken arratsaldean Mullerrenean antolatutako proiekzioaz gozatzeko aukera izan genuen euritik eta hotzetik babestuta.

Salesianos ikastetxeko aretoan antolatu beharreko Mikel eta Esti Markezen kontzertua ordea, bertan behera uztea erabaki genuen. Helduko da areto itxi batean ehunka pertsona elkartzeko momentua, orain pandemiak segurtasunez ibiltzeko eskatu baitigu berriz ere.

Abenduaren 3an berriz, euskararen egunarekin batera kalera atera eta Deustun ohitura den bezala Deustuko kaleak musikaz alaitu genituen. Aurten, kiosko baten faltan, euskararen eguneko argazki erraldoia frontoian egin behar izan genuen. Oso polita irten zen! Beti bezala, eskerrik asko Ekuador Etxeko lagunei ere, egiten ditugun ekintza guztiak argazki kamerarekin islatzeagatik. Bihotz Alai dantza taldearen dantzekin eta txistulari zein danboril jotzaileekin Done Petri plaza tarte batez girotu ostean, tabernen arteko kalejirari hasiera eman genion. Azkenik, Oinutsik Erromeriak gauerdira arte gure gorputzak dantzan jarri zituen Deustuko Gazte Lokalean.

20 urte bete ditugu eta gogotik ospatu izanaren sentsazioarekin geratu gara. Eta noski, aldizkaria beste 20 urte zutik mantentzeko apustuak gurean jarraitzen du. Lagunduko gaituzu?

iNTXiXU ikastola

MATRIKULA / MATRÍCULA

Urtarrilaren 17tik 28ra

Del 17 al 28 de enero

GUZTIONA GUZTIONTZAT!

INTXIXU IKASTOLAKO FAMILIA ELKARTEA

KALITATEA HEZKUNTZAN

intxixu ikastola

Tel. 944759180

zuzendaritza@intxixuikastola.net

www.intxixu-ikastola.net

Kanariar Uharteak, 71 – 48015

RUTH GUIMERÀ URRETXArekin

Aktorea

“Aktoreok askeak eta

John Strasberg antzerki zuzendariaren Accidental Repertory Theater konpainiako kidea da Ruth Guimerà. Actor’s Studioan aritu den Euskal Herriko lehen aktorea da eta Broklyn-eko Company XIV. dantza taldeko laborategian gonbidatua izan da hainbat urteetan. New Yorken hamar urte egon eta gero, San Inaziora itzuli da, etxera. Han ikasitakoa hemengo “aktore ausartekin” partekatu nahi du eta euskaraz.

Testua: Nerea Olaziregi
Argazkiak: Ecuador Etxea

ausartak izan behar dugu”

Beste lan batzuen artean, “HamiltonFellas” pelikula estreinatu berri duzu New Yorken. Bertan une profesional onean egonda, zerk ekarri zaitu berriz Euskal Herrira?
Han ikasi behar nuen guztia ikasi egin dudala uste dut. Amets pare bat ere bete izan ditut. Baina herri mina sentitzen hasi nintzen. Pandemiak ere eragina izan du. Antzokiak denbora luzez itxita egon dira eta esku artean nituen proiektuak bertan behera geratu ziren. “Upstate” basoko etxola batean eman nuen konfinamendua ume batzuk zaintzen. Paseo luzeak eman nituen paraje natural basatien artean eta etxera bueltatu nahi nuela konturatu nintzen. Oso magikoa izan zen. New Yorken bizitakoa oso interesgarria eta estimulatzailea izan da baina orain barnean dudana kanporatzeko eta partekatzeko beharra dut. Aktoreok istorioak kontatzen ditugu eta nik hemen kontatzeko beharra sentitzen dut. Nire herrian eta nire hizkuntzan, euskaraz.

Eta zer ikasi duzu han?
John Strasberg-en metodoa. Bere Repertory Theater konpainiarekin hainbat lan eraman ditut aurreara. Besteak beste, Actor’s Studioko jaialdiko Aleppo antzezlanean protagonista izan naiz. Strasberg-en metodoak oso autonomoa izatera bultzatzen zaitu. Ez du antzezteko errezetarik edo estilo zehatzik baina zure burua ezagutzeko eta landu behar duzuna jakiteko tresnak eskaintzen dizkizu. Berarekin nire bidea egiten ikasi dut.

Noiz erabaki zenuen aktore izan nahi zenuela?
Hamasei urterekin, Intxixu ikastola amaitu eta Ibarrekolandako institutura joan nintzen. Garai hartan dantzan aritzen nintzen La Fundicionen eta Muelle 3n eta Basauriko antzerki tailerretara joaten nintzen. Argi nuen aktore izan nahi nuela. Institutuan ikasle txarra nintzen eta bitxia. Orduan etiketak jartzeko joera zegoen eta ni “ezberdina” nintzen. Orduko giroa maite nuen: bilerak, manifak... eta lagun onak nituen baina ez nuen bertan nire tokia topatu. Antzoki batera sartzen nintzen bakoitzean berriz, etxean sentitzen nintzen. Oraindik ere gertatzen zait. Eta bide hori jarraitu dut, desiren bidea. Uste dut desio bat dugunean bukaeraraino jarraitu behar dugula.

Etxekoen babesa izan zenuen?
Bai, ama beti egon da ni laguntzeko prest eta aitak bere alabarentzat beste ikasketa batzuk nahiago zituen arren, ez zuen trabarik jarri eta nire eskolak ordaindu zituen.

“Antzoki batera sartzen nintzen bakoitzean berriz, etxean sentitzen nintzen.”

▷ ▷ SAKONEAN

"Garai batean zegoen identitate propioa galtzen ari da"

Hamar urte eman dituzu kanpoan. Oso aldatuta topatu duzu Euskal Herria?

Bai. Orain euskara gehiago entzuten da baina garai batean zegoen identitate propioa galtzen ari dela uste dut. Alde Zaharrera joan naizenean deprimitu egin naiz. Lokal asko itxita daude eta turistei begira dago gehiena. Ez dut garai batean gure izaera bereizteko zegoen militantzia hura ikusten gaur egun. Gehiena globalizatu eta instituzionalizatu egin dela uste dut eta horrek pena handia ematen dit. Poztu nau ikusteak nik ikasi nuen institutuan, Ibarrekolandan, batxilergo artistikoa dagoela. Nire gurasoek dirutza utzi behar izan zuten nire ikasketetan.

Heldu eta gutxira Arte Drama arte eszenikoen plataformak antolatutako Aulestiko topaketetan parte hartu zenuen. Nola dago Euskal antzerkigintza ?

Aulestikoa utopia bat izan da niretzat. Euskal Herri sakonean, aste oso batez antzerkia egiteko aukera izatea itzela da. New York-en nengoela, Ander Lipusek deitu zidan bertara gonbidatzeko eta poz handiz hartu nuen. Oso ederra izan da esperientzia.

Euskal antzerkigintzari dagokionez, uste dut oso mugatuta gaudela oraindik. Jendea arau eta estetika zehatz bati oso lotuta dagoela uste dut eta ez da ausartzen hori hausten. Orokorrean, arauak apurtzeko beldurra izaten dugu baina aktoreok libre izan behar dugu bestela artearen zentzu guztia galtzen da. Itzuleran batzuk mehatxu baten moduan ikusten nautela sentitu dut. Egin ditudan proposamen batzuen aurrean marra gorriak jaso izan ditut. Baina ohituta nago. Aktoreok ezetz asko jasotzen dugu. Gure munduan ego eta kutunkeria handia dago.

Nola hasi zinen?
Zorte handia izan dut. Nire lehenengo lana 15 urterekin topatu nuen. Txotxongilo talde batekin aritu nintzen euskal mitologiari buruzko lan batean eta ordutik beti izan dut dantzari edo aktore lana. "Femina Extremula" taldearekin antzerkigintzan hasi nintzen, kale antzerkia egiten genuen eta hainbat jaialditan parte hartu genuen.

Zergatik joan zinen New Yorkera?
AEK eta Euskal Herriko antzerkizale elkarteak zuten Euskalaketa beka irabazi eta aktore formazioa jaso nahi nuen bertan baina egia esaten badizut, ni nor nintzen jakitera joan nintzen hara. Nire burua larrutu nahi nuen nire aktore gaitasunak zeintzuk ziren jakiteko. Eta hori etxetik urrun egin behar nuen, hemengo eraginik ez izateko. Borondatezko erbestealdia izan zen hura nire intuizioa eta benetako desirak topatzeko. Orain kontatu-

ta pelikula bat dirudi baina ez dut ondo pasatu. New York kapitalismoaren erdigunea da, oso basatia eta bakarrik joan nintzen.

Gogorra izan da buelta?

Bai, hamar urte kanpoan egon eta gero etxera bueltatzea eta berriz hastea ez da erreza. Oso independentea izanda gurasoen etxera itzuli naiz. Polita da baina arraroa. Batzuetan uste dut patuak ekarri nauela hona. Itzuli nintzenean aitak koronabirusa hartu zuen, oso gaixorik egon zen ospitalean eta nire ahizpa gaztea eta biok bere liburu dendaren ardura hartu behar izan genuen bi hilabetez. Gurea San Inazioko lehen liburu denda izan zen, 1950. hamarkadan ireki zuten. Orain aitak jubilatu nahi du eta guk denda mantendu nahi dugu. Agian itzuli naiz itzuli behar nintzen momentuan.

Zer behar da aktorea izateko?

Aktoreak arriskatu behar du eta horretarako ausardia behar da. Istorio bat kontatzean gure arima partekatu behar dugu. Gaur egun, nagikeria ikusten dut hainbat aktoreengan. Politikoki zuzena dena gailendu egin da eta denok dena egin dezakegula saldu digute eta ez da horrela. Aktoreok gure arima partekatu behar dugu.

Ze egitasmo duzu orain esku artean?

Arte Drama eta Axut antzerki konpainiekin lanean egon naiz Baionan sorkuntza prozesu batean eta oso interesgarria izan da. Datorren urteko urrian antzezlana estreinatzeko asmoa dugu. Ameslari bat naiz eta seguru nago hemen proiektu interesgarri eta aktore ausart asko topatuko ditudala.

"Gaur egun, nagikeria ikusten dut hainbat aktoreengan"

OKUPAZIOA

2400€ko isuna jaso du Deustuko Gazte Lokalak

Urteurrenaren baitan antolatutako ekintzak burutzeagatik Deustuko Gazte Lokaleko kideek Bilboko Udaltzaingoaren aldetik errepresioa jasan dutela salatu dute. Horrela azaldu dute kaleratutako oharrean: "urriaren 19an gaztetxean egindako kontzertuen ostean lokala jasotzen ari ginela Udaltzaingoa etorri zen jarrera oldarkorrarekin zaraten aitzakipean. Bi polizia gaztetxean sartu eta ostean beste dozena bat sartu ziren bertan zeuden bi kide identifikatzera, atxiloketekin mehatxatu eta identifikatzeko oztopoak jarri zituztela argudiatuz". Identifikatutako kideei heldu zaizkien isunen kopurua gehituta, 2400€ ordaindu beharko dituzte guztira eta zigorrari aurre egiteko datozen asteetan ditu bilketa abiatuko dute.

DEUSTUKO ZUBIA

Deustuko zubiak 85 urte

Deustu-Doneperiaga eta Abando auzoak lotzen dituen zubiak 85 urte bete ditu abenduan. Zubiaren eraikuntza obrak 1932. urtean hasi zituzten eta lau urte beranduago, 1936. urtean, amaitu. Abenduaren 7an zabaldu zen lehen aldiz. Gaur egun 'Deustuko Zubia' izena duen arren, Espainiako Gerra Zibilean frankistek jatorrizko izena aldatu eta 'Puente del Generalísimo' bezala izendatu zuten. 1979. urtean berreskuratu zuen berriz jatorrizko izena. Halaber, 1937. urtean Espainiako Gerra zibilean tropa frankistek aurrera egitea oztopatzeko Bilboko itsasadarraren bi aldeak lotzen zituzten zubiak leherrerazi zituzten, eta horietako bat Deustuko zubia izan zen. Ricardo Bastida arkitektoak egina da eta Jose Ortiz de Artiñano eta Ignacio Rotaetxe ingeniariek diseinatu zuten.

EUSKARA

Berbaizu denda kalean da

Berbaizu Euskara Elkarteak euskara lau haizeetara zabaltzen jarraitzeko hainbat material jarri ditu salgai bere markapean. Denda online bisitatu daiteke eta aurkitu daitezkeen produktuen artean, 'euskarak batzen gaitu' leloa daramaten kamiseta eta jertsea, Txantxiku Aisialdi Taldearen omenez igel berdea daraman bisera, 'alferrarentzat jana eta langilearentzat lana ez da inoiz faltako' leloa duen sukaldeko amantala, lanpasa eta fianbrerak daude besteak beste. Halaber, produktu bat baino gehiago erosita, eskaintza bereziak egingo dizkiete erosleei. Era berean Berbaizukideek produktu guztietan hainbat deskontu izango dituzte.

KIROLA

San Inazio A futbol taldea lehenengo kategoriako sailkapenean

Denboraldi ezin hobea izaten ari da San Inazio auzoko A taldearentzat: lehenengoa da sailkapenean, 32 punturekin, eta 6 puntuko aldea dago bigarren taldearekiko. Momentuz, 13 jardunaldietan ez dute partidarik galdu eta etxean jokatutako partida guztietan garaile izan dira batean izan ezik. Arnau da gehien jotzen duen jokalaria, 8 gol sartu ditu guztira. Auzoko gaztez osatuta dagoen taldea lurraldeko lehenengo mailan dabil denboraldi honetan, eta lehentasunezko mailara igotzeko aukera dauka orain arte bezain fin jarraitzen badute. Taldearen lan ona balioetsi behar da, baina Sani Inazioko Piraten babesa ere garrantzitsua da. Auzoko zaleez osatuta dagoen taldea da, astero taldearekin mugitzen dena haien babes guztia emanez.

2005. urtea.

Txema Luzuriaga

Deustuko Tigrea

López Mendizabal lantegi zaharren eraikina Bilboko industria-arkitekturaren adibiderik interesgarrienetako bat da eta 1942an egin zen.

Lantegiaren bokazio espresionista Joaquin Lucariniren tigre baten eskulturak azpimarratzen du. Tigrearen modeloa eraikinean bertan egin zuten Lucarinitarrek. 4,30 metroko altuera eta 8,30 luzeera du. Jesús Muñoz Mendizabal jauna ezaguna zen Bilboko gizartean, eta beste funtzio askoren artean Bilboko Bankuko kontseilari izan zen. Bere fabrika Durangon mantendu zuen eta Deustun Pedro Ispizua arkitektoaren lan berri bat eraiki zuen.

Segi Deustualdean euskara sustatzen. Eskerrik asko denoi!

Iragar zaitez
Prest!-en
tel. 94 447 10 42
bilbokoaldizkariak@gmail.com

AZALA
TATTOO STUDIO
Errondoko kalea z/g. Ibarrekolanda
tlf. 640 903 311
instagrama: @azala.tattoo

YVES ROCHER
FRANCE
Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765
Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48
H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303

Optica Avenida
Agirre Lehendakaria, 147
SAN INAZIO
Tfonoa: 94 475 11 24

ATXURI TABERNA
Luzarra 1
Deustu
946 75 40 17

BREST
kafetegia
Blas de Otero, 5
Tfnoa: 94 447 95 43

Alonso Pertsianak
656 410 475
Plaza Celestino Mª del Arenal, 12
48015 Deustu-Bilbao
Tel.: 656 410 475
alonsoper@outlook.com

Urrunago zertarako?
Deustuko Liburudenda
San Pedro Plaza 4

Toki Berri Taberna
Good vives!
Luzarra, 6 - Deustu
@tokiberritaberna

1924tik Deustun
Tintorería La Flor
Julio Urquijo 3 - Deustu
94 475 18 29
Mantak, edredoiak, ezkontza eta jaunartze jantziak...garbitzen ditugu

artez
euskara zerbitzua
Probatu
herrizki.eus
ANDROID APP Google play
App Store

Ramon y Cajal, 8 behea
48014 Deustu
tel. 94 475 22 33
matxintxu@aeknet.net
Matxintxu
aek euskaltegia
Matrikula zaitez!

Nailan
Parquetak - Barnizak
Morgan kalea z/g
48014 Deustu - Bilbo
tfno: 94 475 67 84
nailanparquet@euskalnet.net

RONDOKO HORTZ KLINIKA
Iratxe Jimenez Bobadilla
ODONTOLOGO ELKARGOKIDEA ZKIA: 855
Odontologia orokorra eta prebentiboa
Ume eta helduak
Tratamendu estetikoak eta garbiketa
Peridontzia eta protesi kengarriak
Ortodontzia
PADI OSAKIDETZA
Errondoko z/g, SAN INAZIO
94 475 5932
E.P.S. 425/97

Bitxidenda
Sabin
Erlojudenda
Rafaela de Ibarra, 6
Tfnoa 94 475 63 16

KM PERSIANAS CERRAMIENTOS
Deitu eta Ikusi!!
PERTSIANAK ETA ITXIDURAK
Araneko, 28 - 48014 Bilbao
TEL. 94.447.70.32
E-MAIL. persianaskm@persianaskm.com
www.persianaskm.com

BIDAURRE
elektrizitate eta margo-lanak
2daurrelan@gmail.com
669 42 76 23

Zer eskatuko zenuke Gabonetan edozer eskatu ahalko bazenu?

Gaizka
Deustu

Pertsona guztiok eskubide guztiak izango ditugun Euskal Herria askean bizitzea.

Sugoi
Deustuko Erribera

Zorrotzaurre hirigintza proiektua bertan behera geratzea.

Izaskun
Deustu

Koronabirusa behingoz desagertzea.

Guruzne
Natxitua

Patinete elektriko bat.

Jon
Gasteiz

Ordenagailu berri bat.

Nerea
Deustu

Covid19a gelditzeko edabe magikoa mundu guztiarentzat.

>> LITERATURA

ESKALATZAILEEN ESPERIENTZIAK PRISMA FEMINISTATIK BEGIRATUTA

Ikerketa Feministak eta Generokoak Masterraren amaierako lana egiteko lau emakume eskalatzaile elkarrizketatu zituen, baina, lana motz geratu zitzaion eta unibertsitateko loturetatik askatzean, ikerketarekin jarraitu nahi zuela erabaki zuen, bere erara. 'Escalantes' da bide luze horren lehen tontorra – ez baita hemen amaitzen – eta aurkezpenetan murgilduta aurkitu dugu Maria Francisca Mas Riera idazlea, San Inazion bizi den mallorcarra.

Testua eta argazkiak: Jone Gartzia Gerra

Eskalatzen duten 20 emakume elkarrizketatu ditu Maria Francisca Mas Rierak, eta Escalantes izeneko liburuan jaso euren testigantzak. Ikerketa feminista bat egin nahi izan du emakumeek eskalatzean dituzten bizipenen inguruan, memoriari eta narratibei garrantzia emanez eta metodo kuantitatibo eta androzentikoetatik aldenduz.

200 orriko lan sakona da emaitza, dagoneko hainbat tokitan eskuratu daitekeena: @escalantes.libro Instagram kontuan, idazlearekin zuzenean harremanetan jarriz, DDT Banaketaken dendan edo Zirikako herri dendan. Irakurtzeko beta hartzen duenak eskaladaren munduko 20 emakumeren kontakizunak jasoko ditu, zelan bizi duten eskalada, zer ematen dien...

Elkarrizketatuak adin, jatorri eta testuinguru desberdinetakoak badira ere, idazleak argi utzi nahi izan du ez direla ezeren adierazgarri, 20 elkarrizketarekin ezin dela ondoriorik atera eta analisirik estrapolatu. Hala ere, protagonista denek badute zer komunean: eskaladak guztiz markatu du euren bizitza eta denek pairatu dute indarkeria motaren bat, sotila irudituagatik ere (esaterako, bide bati gradua jaistea emakume batek kateatu duelako).

Izenburuak iradokitzen duen bezala, egileak ez dio generoari erreferentziarik egin nahi, baizik eta izate eskalatzaileei. Lanean emakumeen esperientziak oinarri hartzen baditu ere, pertsonari eman nahi dio garrantzia, ez jaiotzean zein genero atxiki zioten. Horregatik, kategoria hori problematizatzeko apustua egin du. Escalantes zortzi ataletan dago banatuta, gaika. Gorputzaren inguruan, eskalatzaileen irudikapenen inguruan, eskaladaren onuraren inguruan, amatasunaren inguruan, mugen inguruan... jarduten du protagonisten kontakizunetatik abiatuta.

Eta jarraituko du

Orain haurrentzako liburu batean ari da lanean Mas Riera, eta aurrerantzean gai honekin lotuta ikus-entzunezko lan bat egiteko asmoa ere badu. Finean, bere helburua eskaladaren inguruko emakumeen bizipenak mahai gainean jartzea da, eta, horrela, eskalatzen dutenek eta eskalatzen hasiko direnek erreferenteak izan ditzaten eta bizipen horiekin identifikatzeko aukera izan dezaten. Aurrerantzean identitate disidenteak lantzea ere gustatuko litzaioke eta hausnarketan eta kritikan sakontzea: "Oso ondo dago emakumeen historia jasotzea, baina kritika bat ere egin behar da". Horretarako, zigilu propioa sortu du: Gehiago Edicions.

http://sarekada

#DAMOLAT

Periferietako gazteen artean euskararen eta euskarazko kulturaren transmisioa sustatzea xede, Damolat Ikas Unitatea aurkeztu zuten urrian. Ahize-AEK hizkuntza aholkularitzak sustatutako proiektua da eta gazteen parte hartze aktiboa bilatzen dute. 2020ko urte hasieratik 2021ko udaberrira arte Bilboko, Portugaleteko eta Getxoko ikastetxeetan egin zuten azterketa eta bertan identifikatutako beharretatik sortu dute Damolat unitate didaktikoa. Doakoa da eta euskarazko kultura gazteen artean sustatu nahi duten eragileek erabili ahalko dute.

Kontaketa erotikoen II. lehiaketa martxan

Azaroaren 16an abiatu zen Kaixomaitia.eus plataformak eta Elkar argitaletxeak antolatutako kontaketa erotikoen lehiaketaren 2. edizioa. Aurtengo lehiaketan 18 urtetik gorakoek parte hartu ahalko dute eta testuak 6.000 eta 20.000 karaktere bitartekoak izan behar dira. Testua bidaltzeko azken eguna abenduaren 31a izango da. Euskarazko edukiak sortzea eta zabaltzea da Kaixomaitia.eus atariaren helburu nagusietako bat, honen arabera "sinetsita baitago euskararen normalizazioaren bidean ezinbestekoak direla euskarazko edukiak sortzea eta sarean ere zabaltzea". Hori dela eta jarri dute aurten bigarrenez kontaketa erotikoen lehiaketa. Eskaneatu QR kodea informazio gehiagorako!

‘BANDA’ OLERKI LIBURUA KALERATU DU JOKIN ERKOREKAK

Azaroan Banda izeneko olerki liburua argitaratu zuen Jokin Erkoreka Abiok Erein Argitaletxearekin batera. 2020ko Blas de Otero - Bilbo Uria nazioarteko poesia lehiaketa irabaztearen ondotik etorri zaio argitalpena eta idatzi dituen olerkiekin “ahalik eta jende gehienarengana heltzea” gustatuko litzaiokeela aitortu du.

Testua: Nerea Cubillo Urkizu

Erein argitaletxearekin batera argitaratu duen arren, bidelagun izan du idazleak Elhuyar hiztegia, eta laguntza hori lanari jarritako izenburuaren bitartez aitortu nahi izan du: “asko erabili dut Elhuyar liburua garatzeko. Idazten nenbilela “bisagra” hi-tza euskaraz esaten ez nekiela konturatu nintzen. Berba polita eta indartsua dela iruditzen zait, alde batetik kanpoan eta barruan dauden gauzen artean dagoen elementua delako eta bestetik, gauzak irteten uzteko beharrezkoa delako, zein gauzak sartzen uzteko ere. Hor erabaki nuen liburua horren inguruan ardaztuko zela”.



Lana lau ataletan banatuta dago eta guztira bost interludio ditu. Sarrera, hiru interludio eta itxiera. Lehenengo atalak Banda du izena eta ikuspegi sozial batetik gizarte zein lan arloko portaeren azterketa txiki bat egiten du idazleak. Bigarren atalean gai "lasaiagoak" ondu ditu, naturaren gaitik abiatuta eta oraingoan irudiei garrantzi gehiago emanez. 2020ko apirilean hasi zen Erkoreka liburua idazten, itxialdi betean. Hirugarren atalak ondorioz etxearen elementua izango du hizpide, baita garai hartan bizitako klaustrofobia sentsazioa zein le-ihotik ikusitakoak. Laugarren atalean hausnarketa nagusituko da, honen hitzetan "hiru atalek tentsioa sortzen duten bitartean, azkenak korapilo horien ondorioak" dakartzalako. Olerkiak idazteko inspirazioa ere itxialdia berak eman zion, izan ere, aurretik ere idazteari denbora eskaini zion arren, etxean sartuta egoteak idazketa biderkatzea ekarri zuen.

Liburuak publiko espezifikorik ez du espero, alabaina, olerkiak euskara hutsean idatzita daude eta beraz irakurle euskaldunak gailenduko dira oraingoan. Hori dela eta, Banda euskaraz argitaratzeko arrazoiak baditu ere Jokinek: "nire lehentasuna beti izan da euskaraz idaztea, arbasoen hizkuntzan zerbait berezia idaztea alegia. Gainera, nahiago dut daukadan alderdi euskalduna garatzea".

Bestalde, Bandak musika erritmoa duela aipatu izan du behin baino gehiagotan Igor Estankona idazleak: "sortu berri den banda baten antzera, berea ez da soilik erritmoa, ez da soilik letra. Estetika bat da, garaje bat, mundu bat, kontatu diguten mundua baino ederragoa batzuetan, itsuski ederragoa beste batzuetan. Publikoak amaieran beste bat eskatuko du: beste poema bat". Hala eta guztiz ere Erkorekarentzako "gauza naturala" da olerkiei erritmo hori janztea, besteak beste, duen musikari senak ere "inkontzienteki" horrela idaztera eramaten duelako agian.

betiON GARA

10 urte zure ondoan

betiON, Euskadiko Telelaguntza Zerbitzu Publikoaren medaila gorriak segurtasuna eta lasaitasuna eskaintzen digu eguneko 24 orduetan.

Argibide gehiago hemen:
www.euskadi.eus/betion
900 851 600
012 Zuzenean

Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD, JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

Xabier Lapitz: Kazetaria
Itziar Aizpuru: Aktorea

PINTXODROMOA

>>SUKALDARITZA

Bristol Bowl-a

Mondragon unibertsitateak eskaintzen duen 'Lidergo ekintzailea eta berrikuntza' graduaren ondorio da 2020ko azaroan zabaldutako Hummus Sapiens jatetxea. Egun gazte talde bat da negozioaren arduraduna, Xabi eta Agus tartean.

Zailtasun maila: ertaina

Prezioa: Ertaina 7€ / handia 8,5€

Kontu batzuk

Unibertsitateak antolatutako Bristolerako bidaian ezagutu zuen Hummusa eta Falafela Mondragon Unibertsitateko ikasle talde batek. Jakiez 'maitemindu' eta Euskal Herrira ekartzea erabaki zuten. Produktu gozo eta osasungarria eskaintzea dute helburu, janari lasterraren kontzeptua aldatzen duten bitartean. Kartari dagokionez, 4 dira aukeran dituzten bowlak. Argazkian ageri den Briston Bowlaz gain, pasta entsalada duen Sapiens Bowla, entsaladarik ez daraman Cardiff Bowla eta Falafela soilik duen bowla eskatu daitezke. Etxean ondutako hainbat saltsa dituzte aukeran plateraren gainetik botatzeko baita apaingarri bat ere, Feta gazta, kipula frijitua ala oliba beltzez eginiko patea. Horrez gain, besteak beste, pita ogia daukate.

HUMMUS SAPIENS
Agirre Lehendakariaren Etorbidea, 13

Asteazkenetik igandera:
13:00-15:30 eta 19:30-21:30

633 771 150
@hummussapiensbilbao

Zelan egin?

Bristol bowla osatzen duten jakiak egiteko hainbat dira aurretiaz egin beharreko pausuak. Falafela egiten hasteko, beharrezkoa izango da berakatza, kipula, porrua eta perexila txikitzea. Behin txikituta, kuminoa eta gatza gehituko ditugu eta azkenik dena nahastuko dugu ore homogéneo bat lortu arte. Hummusa egiteko berriz, txitxirioak egosi behar dira lehenik eta behin. Ondoren, Tahini pastarekin, limoiarekin, berakatzarekin, urarekin eta oliba olioarekin elkartu eta dena nahastu behar da. Tahinia ekialde hurbileko hainbat plateretan osagai bezala erabiltzen den sesamo-hazi ehotuetatik egindako pasta bat da.

Shirazi entsalada egiteko, lehenik eta behin tomatea eta pepinoa moztu behar ditugu eta ondoren, perexila bota.

OSAGAIAK

Berakatza
Porrua
Kuminoa
Kipula
Tomatea
Pepinoa
Perexila
Txitxirioak
Tahini pasta
Limoia

Presta itzazu Deustualdeko tabernetako pintxo goxoenak zure etxean!
Hementxe jasoko dituzu argibide guztiak. Eta hurrengo hilabeteetan...

ZURE PINTXO ONENAK GUREKIN KONPARTITZEKO

Prest?

AITORTU ZURE SEKRETUAK HEMEN

kultur txotx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa

HODEI TORRES
Ikusi makusi

EMAKUME DETEKTIBEA ILUNTASUNEAN BARRENA

Mare Sheehan (Kate Winslet interpretazio itzela egiten), Easttowneko polizia inspektorea da. Estatu Batuetako herri txiki honetan azkenaldian neska nerabeak desagertzen ari dira eta protagonistak hilketen ikerketa eta bere bizitza pertsonal dramatikoa uztartu beharko ditu, apurka-apurka hondatuko dena.

Benetako drama sakona da, thriller iluna askotan eta detektibeen arteko istorio baten bidez herri horren iluntasunean murgiltzen gaituena. Halaber gizartearen tripak azalaratzen dizkigu pertsonaien eta dramen bitartez. Argazkilaritzak honetan laguntzen du, kolore grisa eta tonu apalak nagusi baitira. Gustatu zaidan beste gauza bat gidoiaren sinesgarritasuna eta koherentzia izan da, pertsonaia ia guztiak zalantzan jartzen dituelako. Herrian denek gordetzen dute zerbait beren buruarentzat, ezer ez da dirudiena.

Bestalde, Marek ez ditu zineman ezarrita dauden ereduak jarraitzen, izaera zaileko emakume bat bezala aurkezten da, utzikeriak gaindituta, ausarta eta indartsua bere proiektuetan. Beharrezkoa da hori ezagutzea eta ulertzea, alde batetik zer gertatzen zaion jakiteko eta bestetik hurrengo erasoaldian nola erantzungo duen ikusteko. Hori guztia trebetasun handiz garatzen du aktore britainiarrak. Bere interpretazio harrigarriari esker gainerako elementu dramatikoek indar handiagoz distiratzen dute.

Oraingoan ez da betiko 'super detektibea' ageri. «Mare of Easttown», benetako pertsonaien eta benetako arazoen telesaio bat da eta horregatik da hain indartsua eta iluna momentu askotan.

EIRE SALEGI ZULAIKA
Elorri bertso-eskolako kidea

Doinua: Beste bateko inularretan

Lehen ez nuen gogoz itxoiten
gabonen iritsiera
mahaian heldu kontuen berbak
eta urtero berbera
sofara alde egiten nuen
mus partidekin batera
iada bi urte bizitzera joan
naizela Bilbo aldera
ezin izan naiz nahi beste aldiz
itzuli nere etxera
faltan bota det aita galdezka
eta txisteka izeba
Turroia baino gozoago zait
etxerako itzulera

Diote lagun ta familia
biak direla betiko
baina Bilbotik denak dirudi
hain hotz eta urrutiko
ta orain bueltan inolaz ez det
planik geroko utziko
guztiak bere lekuan dirau
suan hamaika lapiko
lehengusina opariekin
zuhaizpean belauniko
urtero legez iseriko naiz
aitonan alboan tinko
baina aurten ez det mus partidarik
besaulkitik ikusiko

Zentzuz erosi.
Ondo informatu zaitez.
Ezagutu zure eskubideak.
Baztertu estereotipoak.

Zeu zara zure *influencer* onena.

#KontsumitzenJakin

kontsumoBIDE
KONTSUMOKO EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO DE CONSUMO

Euskadi, auzolana
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO

www.bilbaoeuskaraz.eus

Bilbao

KULTURA SENTITU
SIENTE LA CULTURA

2022KO KULTURA PROGRAMAZIOA
PROGRAMACIÓN CULTURAL 2022

WWW.BILBAOKULTURA.EUS